



Lan eskaintza – Lan kontratu mugagabea

Koordinatzailea

Euskal Moneta – Baiona

Sektorea

Ekonomia sozial eta solidarioa

Elkartearen deskribapena

Euskal Moneta, Euskoa, Euskal Herriko tokiko moneta osagarria, garatzen duen elkarte da. Moneta bat baino gehiago da : bere lurraldearekiko elkartasuneko elkarte proiektua da, ekonomia birkokatzea, trantsizio ekologikoa eta euskararen erabilera garatzea dira helburu nagusiak.

2013an sortua, gaur egun Euskoa, Europako lehen tokiko moneta da, 4.000 erabiltzaile, 1.300 profesional, 36 lekuko elkargo, eta 4 milioi eusko baino gehiagorekin zirkulazioan (1 eusko = 1 €). Gure elkarteak 10 langileko taldea du, hainbat poloetan banatua: administrazioa, garapena, komunikazioa eta euskara.

Postuaren deskribapena

Egituraren bihotzean, animazioa segurtatuko duzu eta Biltzar Nagusian bozkatua izan den plan estrategikoak zehazten duen elkartearen politikaren obratze egokiaren bermatzailea zara.

Horretarako, polo arduradunekin, harreman hierarkikorik gabe, baina koordinatzaile rolaekin lan egingen duzu. Lanaren eta proiektuen segimendua egingen duzu, bereziki puntu erregularren bidez polo arduradunekin eta aurrekonturen segipena eginez. Elkartearen kide aktiboekin hurbila zara, talde bilkurak animatuz, loturak sendotzen lan eginez eta urteko engaiamendu eta elkarrizketetan parte hartuz. Hierarkikoki elkartearen lehendakariarekin lotua zara, Gidaritza Batzordeko laguntzaileen eta langileen arteko transmisio uhala zara.

Orduan, Gidaritza Batzordearen bilkuretan parte hartuko duzu, egindako lanaren berri emateko, eta lanean garatu behar diren norabide politikoak ezagutzeko. Administrazio urratsen segimendua ere egingen duzu, eta bereziki diru laguntza eskaeren segimendua. Horrek egitura ordezkatzera eramaten zaitu solaskide eta partaide ezberdinen aitzinean.

Postuarentzat eskatuak diren gaitasunak

Jakintzak

- Lurraldeko dinamika alternatiboen ekosistema
- Elkartearen funtzionamendua, ekonomia sozial eta solidario sektorean bereziki
- Euskararen praktika eta euskararen aldeko mugimenduen ezagutza

Izaten jakitea

- Analisi eta sintesi izpiritua, zorroztasuna eta egokitzapena
- Proposamen eta ekimenen hartzea, autonomian lan egitea
- Harreman eta hitzartze zentzua, entzutea eta idekitasuna
- Idazketa eta ahozko errestasuna
- Arduren zentzua eta elkartearen baloreen eramateko gaitasuna

Gaitasunak

- Langile eta laguntzaile talde baten lana sustatzea eta koordinatzea
- Proiektuak muntatzea, kudeatzea eta garatzea
- Lanaren segipen eta baloratze tresnen plantan ezartzea
- Bulegotika eta informatika tresnak menperatzea

Lanaren abitazea :

Ahal bezain laster

Lansaria

Profilaren eta esperientziaren arabera

Lekua

Euskal Moneta, Cordeliers karrika, 38, Baiona

Zure CV eta motibazio gutuna igorri rh@euskalmoneta.org helbidera, 2024ko otsailaren 29rako berantengik